

165. FITXA Irakurketa eta Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarean txertatuta dauden liburutegien zerbitzuen erabilera sustatzeko dirulaguntzak 2025

Nori zuzendua: Liburutegi publikoen titular diren Euskal Autonomia Erkidegoko udalak, toki-entitate eskudunak eta udal-liburutegi publikoen arloko zereginak esleituta dauzkaten Euskal Autonomia Erkidegoko udal-entitateak.

Sarbide-esteka: [Irakurketa eta Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarean txertatuta dauden liburutegien zerbitzuen erabilera sustatzeko dirulaguntzak 2025](#)

Erreferentziazko araudia: [AGINDUA, 2025eko uztailaren 9koa, Jaurlaritzako lehenengo lehendakariorde eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, irakurketa eta Euskadiko Irakurketa Publikoko Sareko liburutegien zerbitzuen erabilera sustatzeko dirulaguntzak arautzeko eta dirulaguntza horien 2025eko deialdia egiteko dena.](#)

Eremuak: Kultura

Zenbatekoa: 370.000 €

Eskabideak aurkezteko epea: 2025/10/01

Laburpena

Deialdi honen helburua **irakurketa eta Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarean txertatuta dauden liburutegien zerbitzuen erabilera sustatzeko dirulaguntzak** ematea da.

Udalerri bakoitzean entitate onuradun bakarra egon daiteke. Horrenbestez, udalerri batean eskaera bat baino gehiago badago, udalaren eskaerak lehentasuna izango du gainerako entitate eskatzaileen aurretik.

Entitate eskatzaile bat baino gehiago badago, eta haietako bat ere ez bada udala, liburutegi gehien kudeatzen duen entitateak izango du lehentasuna. Azken kasu horretan, entitate eskatzaileek liburutegi kopuru bera kudeatzen badute, liburu-funtsen kopuru handiena duenak izango du lehentasuna.

Diruz lagundu daitezkeen jarduerak

Diruz lagundu ahalko dira 2025eko ekitaldian egiten diren jarduerak, baldin eta **irakurzaletasuna**

sustatzea badute helburu, batez ere haur eta gazteen artean; Euskadiko Irakurketa Publikoko Sareko liburutegietan kultura eta liburutegi-zerbitzuak hedatzeko jarduerak bultzatzea helburu duten jarduerak ere lagundu ahalko dira diruz.

Ilido horretatik, besteak beste, hauek izango dira diruz laguntzeko modukoak:

- a) Irakurzaletasuna sustatzearen arloan profesionalei prestakuntza espezifikoak emateko jarduerak. Ez dira sartuko joan-etorrien gastuak, mantenukoak eta jarduera horietan parte hartzetik eratorritako gainerako dietak.
- b) Irakurketako jarduera osagarriak. Hona hemen adibide batzuk:
 - Ipuinaren ordua.
 - Irakurketa dramatizatuak.
 - Umeentzako irakurketa- eta idazketa-tailerra.
 - Literatura-solasaldiak.
 - Literaturako sormen-tailerra.
 - Literatura-aretoak.
 - Helduentzako irakurketa-tailerra.
 - Etorkinentzako irakurketa- eta idazketa-tailerra.
 - etab.
- c) Liburuak eta liburutegiak sustatzeko kanpainak, bereziki haur eta gazteen artean irakurle berriak erakartzeko.

Laguntzen zenbatekoa

Laguntza hauen xede diren jarduerak egiteko gastuen onartutako aurrekontuaren **% 75**erainokoa izan ahal izango da dirulaguntza.

Aurrekoa gorabehera, entitate onuradun bakoitzari emandako dirulaguntza ezin izango da **30.100 eurotik** gorakoa izan.